KOSTUEN EGITURA

Atal honetan gure enpresak bere gain hartu behar dituen gastuei buruz hitz egingo dugu.

Lehenengo gastua gure proiektua sortzeko behar dugun materiala izango litzateke, baina diseinatuko dugun aplikazio bat izango denez, ordenagailua baino ez dugu beharko.

Bigarrenik, proiektu batek beti suposatzen duen gastu handietako bat proiektua antolatu eta kudeatzen duen lekua da. Baina gure kasuan jarduera guztiak etxetik antolatu eta burutuko ditugu, beraz, alokairuaren kostua eta honek dakarrena aurreztuko dugu, adibidez ura, elektrizitatea eta lokalaren asegurua.

Beste gastuetako bat produktuen garraioa da, kasu honetan bigarren eskuko liburuak eta apunteak pertsonei edo bezeroei entregatu baino lehen, guk proiektua burutzen dugunok berrikusi behar ditugu, egoera on batean daudela egiaztatzeko. Eta ondoren hezkuntza zentrora bidalduko ditugu. Honek suposatzen duen gastua minimoa izango da baina nahita nahiez egin beharko da.

Garraioaz gain, enbalajeak ere erosi beharko ditugu, produktuak eraman ahal izateko eta egoera onean iristeko.

Azkeneko gastua enpresaren asegurua izango da, bezeroekin arazoren bat gertatuko balitz honek lagunduko digu edozein arazori aurre egitea.

PATENTEA: Gure ideia patentatuko dugu eta erabiltzen duen edozeinek dirua ordaindu behar izango digu. 800 € (Patente nacional en España sin Examen Previo).